



Funtsezko jarduerak

- Lokala sortu

Lehenik, gure negozioa aurrera eramateko, lokala eskuratu beharko dugu bertan gure proiektua finkatzeko. Lokal hau alokatu egingo dugu aurretik ditugun aurrezkien bidez. Lokala edukita, obra bat egin beharko dugu gure balio proposamena bertan egokitzeko. Hau da, bertan, oheak, kapsulak, dutexak... sartuko ditugu. Lokalaren erreforma garestia denez, inbertsoreekin aliantzak egingo ditugu lokala erreformatu ahal izateko.



- Publizitatea eta komunikazioa

Gure enpresan oinarritzkoa izango da publizitatea eta bezeroekiko komunikazioa. Lehen, gure balio proposamena ezagutarazteko ezinbestekoa da eta hau gure merkatu segmentuari iritsi ahal izateko. Bezeroekiko komunikazioa berriz, gure bezeroekiko harreman estu bat sortzeko eta hauen arazoak konpontzeko balioko digu.



- Mantenua

Gure helburua gure bezeroek ahalik eta gutxien ordaintzea da. Horretarako, gure enpresaren mantenua merkea izan behar da, gure ROI-a (return on investment) ahalik eta handiena izan dadin. Negozioaren automatizazioa izango da gure lehendabiziko helburua lengileen soldatak murrizteko. Horretarako, zerbitzuaren modelo automatizatu bat sortuko dugu app-aren eta web-orriaren bitartez funtzionatuko duena. Azkenik, lokala garbi mantentzeko garbitzaile bat kontratatuko dugu lokalera egunero etor dadin.



- Lokalaren automatizazioa

Gure negozioaren ezaugarrietako bat automatizazioa izango da. Horretarako aplikazio eta web-orri bat garatu beharko dugu. Hau lortzeko informatikan aditua den enpresa bat izango dugu gurekin lanean ahalik eta software hoberena sortzeko. Honi esker, bezeroak gure aplikazioaren bitartez gure kapsulak eta dutexak erabiltzeko aukera izango du, bere plan mota aukeratu ondoren (normala edo premiuma). Ondorioz, lokalean ez dugu inor lanean izango, dena automatikoki funtzionatuko duelako.

